

EUSKALDUNA

•;-'==M''' ∞/0---

>

Euskaldun seme arrigarria  
adi daukazu begia  
zure fedeak edertzen zaitu  
zabaldurik giz argia,  
zeru ta lurak gora zaitue  
euskaldun agurgarria  
goiko ortzetik agertu jatzu  
zuzentasun gidaria.

Jaioterria ta Jaungoikoa  
dira zure oiñarriak  
gorengo izaki eder bi onek  
sortu deutzue erria  
lenen lenengo gure Jainkoa  
da zure argi bidia,  
onen ondoren, bizi bizirik,  
euzko lur maitegarria.

Sustrai onetan ikusi dozu  
zure bizia indarturik,  
egi egitan, gizonarentzat  
ez dago bide obarik,  
Ni naz bidea autortu euskun  
gure Aitak betidanik,  
au da egia euskaldunentzat  
lorrotz zuzenez josirik.

Bigarren itza... zoragarria...  
eldu jaku zeRu goitik  
eusko semeak onartuteko  
gogo onez biotzetik,  
Ni naz egia diñosku Jaunak  
argiaz inguratirik.  
giza biotzak bizi daitezen  
eskubidez indarturik.

Euzko gizadi sinismendunak  
ez dau nai daiztakeririk  
erria zabal ta eskubidez  
ikusi nai dau bizirik.  
berezkoa dan zintzotasuna.  
biotz barnean sorturik  
egiaz doa bere bidean  
maitasun garrez suturik.

Irugarren itz agurgarria  
zerutik dator kantari  
abotz zoliaz abestuagaz  
maite daben erriari,  
euzko biotzak oroz goitikan  
entzuten dautso Jaunari,  
gora ta gora, geroztik beti,  
jarraituz Jaungoikoari.

Polzaldietan eusko semeak  
dabiltzaz esker -miñetan  
neke aldian gora begira  
eskari ederrenetan,  
iturri on bat dauka biziak  
Jankoaren eskuetan  
eta euzkotar zeru zaleak  
bizia maite egitan.

Jainko Altsuak ba-ditu lurrez  
bere maitale zintzoak.  
Jaungoiko onak ikusten ditu  
bere aurrean etsaiak,  
Bizkaiko lurrez Bilbo gaiñean  
dagon Jesusen Biotzak  
izan zituan aldi aretan  
bere erasotzailleak.

Lege gizonen batzar nausian  
agertu zan arazoa  
Jesusi buruz... baietz ta ezetz...  
apurtzeko irudia.  
zorionean AGIRRETARRAK  
agertuz goi adoria,  
eurak bakarrik babestu eben  
Jesusen Biotz maitia.

Zergatik dauka euskal jatorrak  
zuzentasun guraria...  
Nork emon dautso euzko onari  
ain indar zoragarria.  
lurretik gora onartuten dau  
egiearen adoria  
eta berez dan Maisu Nausiak  
agertzen dautse bidia.

Berezko deia dau euskalduak  
jorratuteko bidiak.  
ain da ederra mundu guztia  
goratuteko anaiak,  
bizitza billa urten etxetik  
ta aurrian daukaz erriak  
biotz zabalez edegirikan  
bizitzaren goi atiak.

Eusko semea zuzentasunez  
doa mundu zabalera  
ta bere argiz eta biotzez  
begira dago izadira,  
abegi onez artuten dabe  
eusko kristauen jokera  
ta euskalduna agintzen dabil  
gizon zuzenen erara.

PAULIN